



Micaela Portilla Saria

Ikasketa feministei edo genero ikerketei buruzko tesi onenaren Micaela Portilla Vitoria Sariaren XI. Edizioaren —2022— epaimahaia bildu da, eta honako sail edo programa hauetako deialdi honetara aurkeztu diren bi tesiak aztertu ondoren:

- Historia Garaikidea Saila
- Balioen Filosofia eta Gizarte Antropologia Saila

Erabaki du **Micaela Portilla Saria 2022** honako tesiari ematea:

Irun eta Hondarribiko Alardeak eta genero ordena. Ikuspegi historiko bat 1993-2008

Autorea

Ilargi Bengoetxea Gartzia

Zuzendaria

Miren Llona Gonzalez



LABURPENA

Irun eta Hondarribiko Alardeak eta genero ordena. Ikuspegi historiko bat 1993-2008.

1996an Hondarribia eta Irungo Alardeen konfliktoak eztanda egin zuen, emakume batzuk Alardeetan soldaduz jantzita sartu zirenean. Emakume horiek herrietako jaietan gizonen pareko parte-hartze aktiboa izan nahi zuten eta hori gauzatzeko moduak genero ordena zalantzan jarri zuen. Genero ordena zalantzan jartzean ordena sozial eta politikoa arriskuan geratu zen eta horren aurrean urte luzez iraungo zuen erreakzioa sortu zen, apurtutako ordena berrezarri nahian. Alardeetatik bortizki kanporatu zituzten emakumeak eta errito horrek eraikitzen zituzten herri komunitateetatik ere, arauak hautsi zituzten disidenteak abjektuaren esparrura bidaliz. Herri komunitateak gizonen osaturiko Alardeen alde garatu ziren eta gu/bestea dikotomia sortu, diskurtso eta irainen bitartez bestearen aldaera askorekin. Hau abiapuntutzat hartuta, herriak eta komunitateak nola sortu eta garatu ziren ikusiko dugu, genero, klase eta nazio kontzeptzio ezberdinak kontrajarriz; apurtutako ordena berrezartzeko saiakeran erabilitako indarkeria, eraikitako komunitate eta transmititutako emozioak nola artikulatu ziren ikertu ditut; Trantsizioaren ondorengo egoera politiko eta soziala aztertu dut konfliktoarekin erlazioan, betiere Bidasoa parte zen jendarteko 90. eta 2000. hamarkadako historia eginez, Bidasoako mugak gainditu zituen arazo eta prozesuez hitz eginda.

Ikerketa gaiak, Irun eta Hondarribiko Alardeen konfliktoak, gaur egunean interes eta kuriositate handia pizten du. Izan ere, oraindik bizirik dagoen gatazka da, polemika handikoa gainera eta askorentzat ulertezina. Bestetik, Alarde mistoen aldeko borroka Euskal Herriko Mugimendu Feministaren mugarri ere dela uste dute hainbat adituk. Hau da, nahiz eta Bidasoaldean kokatutako konfliktoa izan, Euskal Herri osoan eragina eta ondorioak izan ditu eta horrek interes lokala gainditzuten du guztiz. Alardeen gatazkaren inguruko ikerketa historikoa da egin dudana, horren sorrera azalduz eta lehen hamabost urteetan emandako prozesuak eta dinamikak aztertuz. Horrek, beste hainbat konfliktoetan errepikatzen diren elementuak identifikatu eta batez ere, gatazka ulertu eta berriro gertatu ez dadin kontzientziak astindu ditzake.



Accesita

Comunidad, ruralidad y género. Una etnografía en el valle del Roncal

Autorea

Ainara Barron Iriarte

Zuzendariak

Mari Luz Esteban Galarza

Jone Miren Hernández García

LABURPENA

Este estudio toma como punto de partida el éxodo rural-urbano y los procesos de despoblamiento en el que los valles del Pirineo Oriental Navarro están inmersos. Concretamente, la etnografía se centra en la realidad del valle de Roncal. Frente a ese contexto de despoblamiento rural, iniciado en los años 60 del siglo pasado, la investigación ha sido motivada por una pregunta guía ¿Por qué en algunas zonas rurales se van más mujeres que hombres? Para indagar en los aspectos más significativos de este fenómeno, es decir, de esta migración especializada con rostro de mujer, el estudio analiza las dialécticas y articulaciones entre las nociones de comunidad rural y las relaciones de género.